

• ASTERO GAIA •

Low cost

Kontsumo merkea garesti ordaintzen da

Bazar txinatar handi baten modukoa da gaur egungo kontsumoa: euro gutxiren truke, Londresera bidaia dugu RyanAir hegazkin konpainiarekin, etxerako telebista erraldoia Media Markt-en, eta egongela apaintzeko mahaia Ikean. Kontsumo atsegina eta merkea, bai, baina beharginen, lan esplotazioaren eta zalantzazko jokabideen kontura.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

MegaPark: 440.000 metro koadro, horietatik 137.000 saltokiak, eta 17 milioi bisitari inguru urtean. Barakaldon dago kokatuta, Bilbo hirigunetik 10 minutura, eta multinazionalen kokaleku desiratua da.





ONGI ETORRI low cost-aren supermerkatu erraldoira! Krisiak krisi, prezio baxuak mantentzen dituzten enpresek gora egin dute salmentetan. Frantziako Carrefour-ek 1970eko hamarkadan marka zuriekin hasitako bidea eta duela bospasei urtetik hegazkin konpainiek modan ipinitako fenomenoak arlo guztietara hedatu da dagoeneko: elikaduran lehia gogorra dute Lidl, Dia edo Mercadona bezalakoek; telefonian Yoigo-k ekarri zituen prezio baxuak; Tata Motors auto konpainia indiarrek aurkeztu berri duen kotxea (2.000 euro baino gutxiago) eredutzat hartu dute Europako hainbat konpainiek; Belgikan koste gutxiko hamar gasolindegia irekiko dituzte aurten, langilerik behar ez dutenak; eta low cost bankuak, hotelak, bidai agentziak, jatetxeak, aseguruak... merkatua bereganatzen ari dira pixkana.

Baina prezio merkeak mantentzeak badu bere trikimailua: low cost enpresak low cost baldintzak eskaintzen dizkie langileei, salneurri horietan etekina atera ahal izateko beharginak baitira zukutuenak. Maiz, halaber, herrialde txiroetan dituzten enpresa-hornitzaileetako lan esplotazioa dago halako pagotxaren oinarrian. Eta hainbatetan zipriztindu dituzten eskandaluak aintzat hartuta —aurrerago zehaztuko ditugunak—, legearen muga lausoekin ere jokatzen dute.

Eskuzabalik onartzen ditugun negozio hauek gizarte eredu pobrea ari dira zabal-

“Merkataritza txikia sustatu behar dela esaten da administrazio publikotik, baina erostetxe handiak bultzatzen ditu aldi berean”, kritikatu du Alberto Alonso LAB sindikatuko kideak. Irudian, MegaPark-eko Ikea dendaren inaugurazioa, 2005eko martxoan.

tzen, eta zenbat eta eremu handiagoa hartu, orduan eta arrisku handiagoa izango dugu gu geu baldintza horien menpe erortzeko, lehia basatiaren oihanean. Euskal Herrian badugu adibiderik:

MegaPark, erosle konpultsiboaren paradisu

440.000 metro koadro, horietatik 137.000 saltokiak, eta 17 milioi bisitari inguru urtean. Barakaldoko MegaPark 2004an inauguratu zuten, Bilbo hirigunetik 10 minutura dago eta multinazionalen kokaleku desiratua da: bertan aurkituko dituzu Ikea, Leroy Merlin, Decathlon, Bermudez, El Corte Inglés, Media Markt edota Saturn, beste askoren artean. Alberto Alonso LAB sindikatuko kidearen arabera, MegaPark prekaritatearen sinonimo da. Bilbo ezkerraldeko enpresez arduratzen da Alonso, eta gertutik ezagutzen du merkataritza-guneko low costen egoera: aldi baterako kontratuak, soldata baxuak eta lanaldi partzialak nagusitzen dira, 16-20 ordu asteen, “eta 16 ordurako norbait kontratatzen dutenean nahi dute 30 ordukoak adina ekoiztu dezan”. Oinarrian, hitzarmen prekarioak daudela azaldu du Alonsok; erostetxe handientzako Espainiako Estatuko hitzarmena dute gehienek: “Bizkaiko edozein hitzarmen probintziales izan ditzakeenak baino baldintza kaskarragoak ditu Estatukoak eta horren baitan daude, esaterako, Carrefour, Saturn, Ikea edota Media Markt”.

Leroy Merlinek ere Estatu mailako hitzarmena du, baina lehen propioa zuen, are okerragoa. Dia supermerkatuak ere berea du, Espainiakoa baino hutsalagoa. LABeko ordezkariak dioenez, ia-ia patronalak nahi duen bezala sinaturiko hitzarmena da Estatu mailakoa, eta Euskal Herrirakoa sina dadin borrokan ari dira orain, langileek eskubide eta babes handiagoak izan ditzaten.

Zertan islatzen da hitzarmen prekariora? Batetik, diru gutxi irabazten dute. Ikeako datuak eman dizkigu Alonsok, LABek ordezkaritza baitu bertan: 2008an, jardunaldi osoz lan eginda, oinarriko soldata gordina 819 eurokoa izan zen hastapeneko kontratua zutenentzat –gutxienez lehenengo bi urteak– eta 846,71 euro gordin bi urte baino gehiago zeramatzenentzat. Gainera, ordutegiak egun batetik bestera aldatzen dizkiete, ordu estra asko sartzeko prest egon behar dute eta, hainbat langilek salatu duenez, norgehiagoka etengabea jasan behar dute nagusiekin. “Eguneroko arazoak dira; kasik buruzagi gehiago dago langileak baino eta haien filosofia da beti irabazten atera behar dutela. Bat-batean esaten dizute ‘bihar ez zatoz goizez, arratsaldez baizik’. Edo esaten diozu ordu estra asko sartu dituzunez larunbatean jai hartu nahi duzula eta nagusiak ezetz, asteartean jai hartzeko. Eta zuk: ‘Bada hurrengo larunbatean ezin bada, bi barru’. ‘Ezetz, asteartean, eta ez dago bueltarik’. Ez dira kasu ikusgarriak, baina txiki askok erre egiten dute langilea, etengabeko markaketa sufritzen dute, beti gainean. Gazteak kontratatatu ohi dituzte eta jendeak dituen beharrez aprobetxatzen dira, baldintzak gogortzeko”, dio Alonsok.

Kontua da prezio merkeak eskaintzeaz gain, irudi *guaya* eman ohi dutela enpresa



Kontsumitzaileen kexa asko jasotzen ditu Media Markt-ek, salmentaz geroko zerbitzu kaskarra salatuz.

hauek: familia guztiari zuzendutako negozioak dira eta arduratsu jokatzeko omen dute inguruarekin eta kontsumitzailearekin. Publizitatea ondo erabiltzen dakite: “Ni ez naiz tontoa” moduko mezuak, adibidez, aukera ona galdu nahi ez duen herritarrengana iristen dira. Kontran, enpresa hauetako jokamoldeekin loturik eskandalo larriak azaleratu dira behin baino gehiagotan:

Ikearen etika egurtua

Ez du curriculum makala multinazional suediarrek. Iaz hartu zuen azken kolpea: ZDF telebista kate publiko alemaniarrek argitara eman zuen langileak espiatzeko bideo-zaintza sistema instalatu zutela euren

dendetan, enpresa-batzordeari jakinarazi gabe. Horrez gain, langileei fisikoki ahalegin handiegia eskatzea, ordutegi aldaketa eta luzapen neurrigabeak exijitzea eta bigarren lanpostu bat bila ez zezaten lanaldi partzialeko kontratudunei gizarte segurantzaren kentzea ere leporatu zieten, besteak beste. Telebista alemaniarra izan zen baita ere Ikeako trapu zaharrak agerian utzi zituen lehena: 1994tik 1998ra bitartean, Pakistan, India, Vietnam, Errumania eta Filipinetako Ikearen enpresa hornitzaileetako lan esplotazioak hedabideen arreta bereganatu zuen. Horren haritik, jendea ez esplotatzeko gida den Iway jokabide-kodea idatzi zuen multinazionalak, nahiz eta besteak beste, onartzen duen 12 urteko haurrek lan egitea, baldin eta euren herrialdeetan legala bada.

Iway marketen hutsa zela frogatu zen, dena den, duela bi urte, Herbeheretako FNV sindikatuaren aginduz egindako eta *Le Monde Diplomatique* hilabetekariak argitaraturiko ikerketan. India, Bulgaria eta Vietnameko



gozatu euskaraz

gure artean euskaraz



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Goian, RyanAir-en infiltraturiko kazetariaren kamera ezkutuak jasotako irudia: hegazkineko laguntzailea lanorduetan lo. Salbamendu-txalekoak ez direla gainbegiratzen ere erakusten du bideoak, eta funtzionatzen ez duen larrialdi arrapalari jaramonik ez diotela egiten.

fabriken egoeraz mintzo da ikerlana: gutxienekoaren azpiko soldatak, 12 eta 15 ordu bitarteko lanaldiak asteko zazpi egunetan, haurren erabilera, mehatxuak eta sindikatuak antolatzekeo trabak. Altzarietarako egurra Errusia eta Txinako basoetan kontrolik gabe lortua dela ere salatu zuen ikerketak. 400 milioi bezero baino gehiago ditu gure etxetako errepublika independentea dekoratu nahi duen negozioak, eta Ingvar Kanprad fundatzaileak hala esan zuen bere biografian: “Salneurri baxu hauek beti daude justifikatuta, eta horrek exijentzia itzelak inposatzen dizkie gure kolaboratzaileei. Gure gastuak zorrotz mugatu ezean, inoiz ezingo dugu gure misioa bete”.

Media Markt, kexen errege

Langileak behar bezala ez prestatzea, ordu estrak egitera behartzea, ez dagozkien lanak eskatzea eta soldata baxuak irabaztea dira sindikatuek eta langileek teknologiararen low cost-ari egiten dizkieten kritika nagusiak. Kexa asko, hala ere, kontsumitzaileen ahotik datoz –Interneteko foroetan Media Markt hitza sartzea baino ez dago–. Kontsumo-ondasun iraunkorreko low cost dendetan bestelako saltokietan baino kexa gehiago jasotzen direla baieztatu digu Jose Luis Segura Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketako (EKA) prentsa buruak. Arazoa normalean ez dago artikularen kalitatean, salmentaz gero zerbitzuan baizik: bezeroarentzako arretan eta batez ere bermeen legea betetzeko orduan. Produktua gaizki badago konpondu, aldatu edo dirua itzuli egin behar da,

“Bizkaiko edozein hitzarmen probintzialek izan ditzakeenak baino baldintza kaskarragoak ditu Espainiako Estatukoak, eta horren baitan daude Carrefour, Saturn, Ikea, Media Markt edota Leroy Merlin”

Alberto Alonso, LAB

baina horretarako eragozpen asko jartzen dituzte. Seguraren esanetan, teoriarik merkeago saltzeak ez du produktuaren kalitatean edo kontsumitzaileen eskubideetan beharpenik ekarri behar, baina praktikan gertatzen da: “Legearekin jokatzeko dutela argi dago. Gaizki edo hondatuta badaude saldutako produktuak, behartuta daude konpontzera, aldatzera, dirua itzultzera... Baina hori guztia atzeratzen saiatzen dira, komunikazio trikimailuak erabiliz, ea bezeroa aspertu eta bakean uzten dituen”.

RyanAir, infiltratu bat kabinan

Hegazkina mantentzeak ehun milioi eurotik gora kostatzen badu, hegaldi bakoitzeko milaka litro erregai erabili behar bada eta pilotuen soldatak altuak badira, nola da posible EasyJet, Vueling, ClickAir edo RyanAir konpainiekin 30 eurotan Europako edozein herrialdetara bidaiatu ahal izatea? Zoritxarrez, oso bigarren mailako aireportuak erabiltzea, bidaiari mokadurik ez banatzea eta abioia behar bezain garbi ez mantentzea ez dira arrazoi bakarrak. RyanAir-ek jaso dituen kritika anitzen lekuko dugu, esaterako, Channel 4 telebista kate britainiarrak eskainitako erreportaje gordinak –ikugai <http://ttiki.com/2318> helbidean, Youtuben eta ingelesez–: kazetariak lortu zuen hegazkineko laguntzaile sartzeko konpainian, eta bost hilabete eta erdi kamera ezkutuarekin bildutako materialak ez du leku onean utzi zeruetako burua. Langileei eskainitako prestakuntza praktikoa hutsaren hurrengoa da, ordu pare bat abioian atek irekitzen ikasteko. Dirua irabazteko, abioiak martxan egon behar du ahalik eta denbora gehien, eta hori ziurtatzeko, lehorrean ez da apenas egoten:

25 minutukoa da hegaldien arteko denbora, kontrolerako eta garbiketarako –ordu pare batekoa beharko luke–. Hala, bidaiarien pasaporte egiaztatzea azkarregi egiten da, eta askotan hegazkina ez da guztiz prest uzten: salbamendu-txalekoak ez dira gainbegiratzen –“Billeteagatik penny bat ordaintzen duzunean, ez espero txalekoa izango duzunik, kar, kar, kar”, dio laguntzaileetako batek erreportajea–; inork ikusi ez zuen pakete susmagarria utzi zuen kazetariak eta egun oso batez egon zen utzitako lekuan; eta are okerrago, larrialdi arrapaletako bat ez

zebilela konturatu ziren batean, langileek ez zuten jakin zer egin eta azkenean bere horretan utzita aireratu ziren.

Ahalik eta langile gutxien kontratatzen dituzte, 10 orduko jardunaldietarako, bospa sei egun astean, eta airean dauden orduenga-

tik baino ez dute kobratzen –eta gutxi–. Kamera ezkutuarekin hartutako irudietan, hegazkineko laguntzaileak –tartearen burua– lo ikus daitezke lanordutan, nekearen nekez, eta baita ere atzerapen luzearen ostean pilotua gogoz kontra aireratzen, gauerdiz eta jota, baina bestela bota egingo duten beldurrez. Kazetariak egiten dion itaunari erantzunez, kopilotuak kontatuko dio hilean 99,9 ordu egiten dituela airean –legez, muga 70 ordukoa da 28 egunero edo 900 ordukoa urtean; beraz hilean 100 ordu eginda, bederatzi hilabetez baino ezingo luke hegan egin–. *Bizkaie!* aldizkari elektronikoan Egoitz Elorz pilotu komertzialak onartzen duenez, “konpainia merkeek legeak eskatzen dituan minimoak eta maximoak muturreraino eroaten dabez, euren interesen arabera. Soldatak baxuak dira eta lan-baldintzak nahiko eskasagoak. Azkenean, zeruko autobus-gidarien parekoak gara, hilean 1.200 euro kobretan”.

Europar, Frantzia da low cost hegaldi konpainia gehien dituen estatua (%37) eta Espainia bigarrena (%28).


Lidl-en liburu beltza

Iaz bertan, *Stern* aldizkari alemaniarrak polemika handia sortu zuen, azalera ekarri zutenean Lidl supermerkatu kateak langileen espioitza kasu larriak praktikatzan zituela. Minikamerek grabatutako irudi eta elkarrizketen bidez enpresak osatutako txostenetan, esaten da adibidez langileetako bat gehiegi joaten dela komunera, noiz joaten den, zeinek hitz egiten duen gehien, zeintzuk duten harreman pertsonalen bat, nolako izaera duten, zein iritzi politiko dituzten edota maitalerik al duten. 2008an baita ere, Oxfam gobernuz kanpoko erakunde britainiarraren ikerketak Lidl, Aldi, Edeka, Rewe eta Metro multinazionalak hatzarekin seinalatu zituen. Salaketa, ananaka eta bananak saltzen dizkieten Costa Rica eta Ekuadorreko langileen baldintza txarrak; hala nola, 12 orduko jardunaldiak, soldata irrigarriak eta umeen erabilera.

Lidl-ek, dena den, itzal iluna darama arrastaka 2004tik. *Schwarz-buch*-ek, Lidl-en liburu beltza deiturikoak, gogor kritikatu zuen enpresaren politika. Europako hainbat herrialdeetako langileei egindako elkarrizketen informazioarekin osatzen da lana, eta beharginek pairatzen zuten presioa du ardatz. Hona adibide bakarra, lotsarazteko modukoa: Europako herrialde batzuetan, hilekoa zuten emakumezko langileek buruan zinta gorria eraman behar zuten, nagusiak komunera joaten utz ziezaieten lanorduetan.

Iaz *Stern* aldizkari alemaniarrak azalera ekarri zuen Lidl supermerkatu kateak langileen espioitza kasu larriak praktikatzan zituela.

Minikamerek grabatutako irudi eta elkarrizketen bidez enpresak osatutako txostenetan, esaten da adibidez langileetako bat gehiegi joaten dela komunera, noiz joaten den, nolako izaera duen edota maitalerik al duen.



Administrazioaren mezua

Kontuak kontu, kontsumitzaile asko eta asko ohitu egin da low cost-etara, krisi garaiotan bereziki. Belaunaldi gazteenek zuzenean salneurri baxuko saltokien bidez egin dute salto kontsumoaren mundura eta zaila dirudi etorkizunean joera aldatzea. Merke lortutako produktuagatik, zergatik garestiago ordaindu? Gainera, Alberto Alonso sindikalistak azpimarratu du administrazioa ez dela lagungarri. Mezu kontraesankorra duela dio, merkataritza txikia sustatu behar dela esanez eta aldi berean erostetxe handiak ahalbidetuz eta bultzatuz:

“Megaparkeko Ikearen inaugurazioan Ibarretxe lehendakaria eta hainbat ordezkari etorri ziren aulki bat muntatzera. Halako enpresek aldi baterako kontratuekin jende gaztea lotzen dute berehala, eta alde guztietatik diru-laguntzak jasotzen dituztenez, plantilla puztu egiten dute. Diote: ‘Mila lanpostu ekarriko ditugu!’ Baina mila lanpostu nolakoak?, zein baldintzatan? Nik ere mila lanpostu sor ditzaket asteen 10 ordukoak, baina horrek ez dit ezertarako balio.

Asteen 10 ordu lan egitearekin zenbat irabaziko dut? Beste lan bat partekatzea ere ezinezkoa zait, ordu aldaketekin lotua naukatelako”. Hori da, laburrean, hainbat eta hainbat langileren panorama. Low cost ekonomiak, finean, low cost bizimodua dakarrelako. ■

“Legearekin jokatzan dutela argi dago. Produktuen konponketa edo aldaketa atzeratzen saiatzen dira, ea bezeroa aspertu eta bakean uzten dituen”

JOSE LUIS SEGURA,

KONTSUMITZAILEEN ANTOLAKETA